

## herrera

**Larratzoko** Haur Liburutegiko eta Casares Kultur Etxeko liburutegiko ordu-tegia aldatu egingo da aurtengo ikasturtean. Orain arte larunbatero erabil zitezkeen liburutegiko ikasgelak, baina hemendik aurrera, urriaz geroztik, hileko lehen bi larunbatetan bakarrik egongo dira irekiak liburutegiko ateak. Honela, urriaren 7an, azaroaren 4ean eta 11n eta abenduaren 2an eta 9an egongo da irekita.

**Herrerako autobus** geltokiétako markesinak aldatzen hasiak dira Udal langileak. Duela hilabete batzuk Bidebietako autobus geltokiaren markesina



aldatu zuten eta gogoratu-ko duzue Donostiarako norabidean beharrean Bidebiatarako norabidean jarri zutela. Oraingoan, Herrian bertan, Altza biderako autobus geltokiaren markesina jarri dute, baina lehenagotik autobusaren ibilbi-

dea adierazten duen zutabetik oso urrun kokatu dute, ez al lukete biek elkarren ondoan egon behar?

**Gaiztarrotik** San Luis enparantzara doan zebra-bidearen ondoan dagoen

**Herri-Pe auzo elkarateak, hurrengo ikasturtean jasango dituen aurrekontu murrizketak aurreikusiz, diru bilketa berezi bat egitea erabaki du. Horrenbestez, urteetan zehar auzo elkaratearen historia eratu duten argazkiak salgai jarriko dituzte. Argazki bakoitzaren prezioa 100 pezetakoa izango da eta diru honekin auzotegian orain arte antolatu diren ikastaroak mantentzea lortu nahi da.**

semaforoetatik oinezkoentzako ukitzailak desagertu dira. Honen ondorioz, hemendik aurrera semaforoaren nahia errespetatu beharko dugu guztiok.

LARRAIZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

# La Asunción Ikastetxea

Gaueko BBBsubentzionatua

Gipuzkoako zentru bakarra; 20 urtetako esperientzia

## Ezaugarriak:

- Ordutegia: 18.15etatik 22.00etara
- Titulodun irakasleak: doktoreak, lizentziatuak,...
- Irakasgaiak: BBBn ohizkoak direnak *soinketa* eta *EATP* ezik
- Hizkuntzak: frantsesa eta ingelesa
- Lan kontuengatik ikastaroa zatitu daiteke
- Lokalak: oso ondo egokituak klaseak emateko; biblioteca bikaina, laborategiak etab...
- Ikaslego mixtoa
- Beharrezko titulazioa: OHO edo LH-1
- Adina: 18 urtetatik aurrera, mugarik gabe. 16 eta 17 urterekin, laneko ziurtagiriarekin

**Informazio gehiago idazkaritzan goizeko 10.00etatik 13.00etara**

**La Asunción Ikastetxea, Mirakruz gaina • Tfnoa.: 28 84 11**